


BERRIKETAN

Debako herri aldizkaria - 257. alea - 2020ko abendua





**Gazte Asanblada
elkarlanean bidea egiten**



**URDAITEGIA
AITTOLA
HARATEGIA**

Astillero, 3
Tlfnoa.: 943 191 776
20820 DEBA

ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

LENTZERIA

Azoka

MERTZERIA

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA

Calbeton



JATETXEA

**Agustín
Larrañaga Elorza**

**Denboraldiko platera
arrain eta barazkitan**

Hondartza kalea
Tlfnoa.: 943 191 970
20820 DEBA (Gipuzkoa)



50 URTE

**BURU - ZURI
Taberna**

- Otartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak
- Razioak
- Pintxo bereziak
- Luntxak
- Gauetan tragoak

Lersundi Kalea, 23
Tel.: 943 191 034
20820 DEBA



SUKIA

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 29
Tel.: 943 192 386
Deba (Gipuzkoa)

**Euskararentzat bidea ez da
erraza eta leuna;
hala eta guztiz ere, argituko da
noizbait bere etorkizuna.
Hizkuntza dugu herriak duen
benetako ondasuna,
Urte Berriak dakarkiola
geureari osasuna.**

**1985etik herritarren zerbitzura.
Gure beharrik izanez gero,
hementxe gaituzue.**



DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA
Ifar kalea, 12 - 20820 DEBA | 943 19 22 36
udaleuskaltegia.deba@debabe.eus

*Eguberri zoriontsu
eta Urte Berri on!*



AURKIBIDEA

6

KOLABORAZIOA

Burdin Kurutz
Mendi Taldea
Herrikoak Berriketan
atalean



10

ERREPORTAJEA

Urteotako erreparasoa
eta elkarrizketa
egungo Debako Gazte
Asanbladako kideei



Arg.: Martin Lores

13

ALBISTEAK

Mendata institutuak eta
Zuhatzak antolatutako
literatur lehiaketaren
sariak banatu dira



14

ELKARRIZKETA

Zuhatza elkarteko
Itziar Arana eta
Alex Turrillas
ordezkariekin solasean



Arg.: Martin Lores

16

B. GAZTEA

Ekhi Etxaberi
elkarrizketa,
Euskaraldia eta
Euskararen Eguna...



BERRIKETAN

Ifar kalea, 12 behea
20820 Deba

Telefonoa: 943 19 13 83

Aldizkariaren e-maila:

berriketan@zuhatza.com

Elkartearen e-maila:

koordinatzailea@zuhatza.com

ARGITARATZAILEA

Zuhatza
elkartea

LAGUNTZAILEAK



DEBAKO UDALAK



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagunduta



Gipuzkoako Foru Aldundia

Argitaratzailea:

Zuhatza Euskara Elkartea. Deba.

Koordinatzailea: Izaro Aulestiarte

Erredakzioa: Izaro Aulestiarte, Nagore Dorronsoro eta Alex Turrillas

Hizkuntza ardura: Lukax eta Nagore Dorronsoro, Izaro Aulestiarte

Azaleko irudia: Martin Lores

Publizitatea: Joseba Escudero, Terese Larrañaga eta Alex Turrillas

Logotipoaren diseinua: Iñaki Elosua

Maketazioa: Leire Rubio

Tirada: 1.400 ale

Maiztasuna: Hilabetekaria

Lege gordailua: SS-246-2009

Inprimategia: Euskalinpri

ISSN 2171-7656

OHARRA:

Berriketan-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak berriketan@zuhatza.com helbidera bidali beharko dira, hilabeteko lehenengo astelehena baino lehen.



Berriketan-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: berriketan@zuhatza.com edo koordinatzailea@zuhatza.com.

Adéu, Miquel

Agur, agur, agur eta bide on.
Agur, agur, agur eta zori on.

Eskerrak eman baino ez
Elkarrekin eman diagun denboragatik.
Gustura egon bahaiz,
Errepika genezakek...
Eta egun batez ahal balitz, agian.
Hobe duk ez esatea
Ozenkiegi.

Agur, agur, agur eta bide on.
Agur, agur, agur eta zori on.

Beti gure ondoan izan hadin nahi genikek
Baina bazekiagu hasiera guztiek dutela amaiera.
Gurekin eraman nahi genikek beti
Badoazen urte hauen oroitzapena.

Orain elkarri agur esatean
Eta bekoz beko gaudela
Zuzenago litzatekek
Inolako promesik ez egitea
Eta egun batez ahal balitz, agian.
Hobe duk ez esatea
Ozenkiegi.

Agur, agur, agur eta bide on.
Agur, agur, agur eta zori on.

Hemen egongo ginatekek
hirekin egunsentira arte
Baina ez haugu bidetik baztertu nahi
Jakizak soilik hor hagoela sentitzeak
asetzen gaituela
Eta hirekin batera kantuan
aspertzeke hustutzeak.

(Feliu Venturaren kantu-letra
baten moldaketa)



Hitzok Miquel bera aurrean zela esan nahi izango genizkioken. Tamalez, bizi dugun ezusteko egoera hau dela-eta, ez zen posible izan. Bihoaz hemendik gure taldekide eta lagun mina izan denari egin-dako azken agur gisa.

Jokin Lasa eta Ibon Urkia

Ibilian-ibilian, dabilen bidea...

Urriaren 24an "Konponbidea/resolution" lemapean herriak piztuta daudela irudikatu genuen, bizikidetzaren eta bakearen bidean aurrera egiteko borondate irmoa dugula.

Sarritan esan dugu konfrontazio etapak gaintzeko unea dela. Aurrera begiratzeko unea dela. Horretarako oinarrizko giza eskubideekin eta legearekin talkan den espetxe-politika ezohiko honekin amaitu beharra dugula.

Presoen eskubideak errespetatu eta ahalik eta azkarren etxera ekartzea lortu behar dugu, bakeak bere bidea egin dezan.

Bizi dugun egoera berezia dela eta, urtarrilean egiten dugun mobilizazio orokorrak formatu ezberdina izango du, baina herriz herri Bilbora joaten garen guztiok batzea da gure helburua. Beraz, urtarrilaren 9an, arratsaldeko 17:30ean, herriko plazan burutuko dugun ekitaldian

parte hartzera gonbidatzen zaitugu "Izan bidea" kantaren letra horretarako baliatuz.

Bide, joateko bide
ez al dun posible
joan dena itzultzerik libre?
Bide, oin azpiko bide,
ez al duk posible,
izaterik zenbait eskubide?

Erantzun ezan bide,
zein duman norabide.
Erantzun ezak bide,
noiz helduko haiz libre?
Etxera, libre?

**Iiiii, ibilian-ibilian, dabilen bidea,
Etor zaitetz gurekin, izan bidea**

Bide, dispertio bide,
ez al dun posible,
denak izaterik herrikide?



Bide, zapalduen bide,
ez al duk posible,
zutik ibiltzea hi re?

Erantzun ezan bide,
ez ote den posible?

Erantzun ezak bide,
izan gaitezen libre!
Bidez bide, libre!

**Iiiii, ibilian-ibilian, dabilen bidea,
Etor zaitetz gurekin, izan bidea.**

Debako Sare 

Fronterantz

Júlia eta biok Salamirekin abiatu ginen tabernarantz. Eskuak poltsikoetan berriro ere. Banderak, kontuz tolestuak, motxiletan berriro ere. Eta motxiletatik gero ohe azpiko kaxetara, berriro ere. Egunerokotasunarekin parentesia, aktibismo berria. Musukoak ez dira hain gogaikarriak azaro bukaerako manifestaldietan, batez ere Bartzelona epeletik kanpo, burdinbidean gora, egiten badira. Eta are gehiago ez badira, Bartzelonako itotasunetik kanpo, hain jendetsuak izaten. Baina aurpegi erdia tapatuta izan arren berehala ezagutu nuen Salami, (berriro ere) sakabanatzen hasia zen jendearen artean, bakoitza bere etxerantz. Saharar batzuen kasuan alderantziz, plaza hartan etxetik inoiz baino gertuago sentitu ondoren, harrizko banku hotzetan eseri ziren, haima imajinatuen berotasunean, diasporako pisuetako erbestea ekidin nahian. Baina lehenengo kontuz tolestu zituzten banderak.

Hortan hasi ginen Salamirekin berriketan, elkarretaratze osteko elkarriketa errituala: besarkada, nola pasa den denbora, hau nire lagun Júlia da, zer moduz dena? Baina azkenengo galdera honen kutsua desberdina zen oraingo honetan, ez zen betiko esaldi automatikoa edo isilune deserosoak are deserosoago bihurtzeko komodina. Ahoskatu gabeko larritasunetik begiratzen genion elkarri. Baina larritasuna zirrara zen era berean. Salamik zioen laster jaitsiko zela frontera, anaiak bertan zituela dagoeneko, ez zekiela pandemiaren amaiera ikusteko beste biziko zen edo ez. Hau dena poztasun kutsakorrez, edozein tuitero europar "bakezale" eskandalatzeko moduan. Bizitza guztia momentu horren itxaroan isiltzearen ziurtasunez mintzatzan zen; guraso, aitona-amona eta belaunaldi saharar guztiak erraetan eramatearen arduraz, borrokaren amorruz, frustrazioz, beldurrez, itxaropenez. Sahararrek euren etorkizunaz hitz egiteko duten legitimitatez.

Erritualarekin jarraitzeko lehenengo hiru garagardoak eskatu



genituen plaza ondoko tabernan. Trago eta trago artean ahotan hartu genituen komunikabideen isiltasuna, Saharako lurretako lehengaien expolioa, europar gobernuen interesak, marokoar erregimenarekiko konplizitateak, aliatuak, kooperazio paternalista, lagunak eta familia. Salamiren ama Mendebaldeko Saharan jaio zen, Bojador lurmuturrean, gutxienez ezaguna omen den kostaldeko zonaldean. Bertako hondarrak, desertukoak ez bezala, ez ditu oinazpiak kiskaltzen. Semeak mapan erakutsi zigun amaren jaioterria: ez du inoiz itsaso hura ikusi, baina etxe esan zion.

Etixeratze-agindua bertan zen eta oraindik burdinbidean beharra egin behar genuen. Ordaintzera nihoala kamareroak ezezkoa egin zidan, Salamiri begira. Eta Salamik irribarre, bera sahararra zela ez ahazteko esanez. Eta orduan nahigabe gudu-zelaian imajinatu nuen, 23 urteko gazte irribarretsua, eta hesteak korapilatuta zitzaizkidan.

Julia Ron

Saharako herriari elkartasuna adierazi dio udalbatzak

Debako udalbatzak Saharari buruzko mozioa aho batez onartu zuen azaroaren 26an egindako osoko bilkuran. Mozio horren bitartez, elkartasuna eta babesa adierazten die Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoari, SEAD, eta Fronte Polisarioari. Era berean, Eusko Jaurlaritzari SEAD eta Fronte Polisarioaren aldeko jarrera publikoa har dezala eskatzen dio.

Marokoko Erresumak 1991n Fronte Polisarioarekin sinatutako su-etena apurtu izana salatzen du. Nazio Batuen ebazpenetan oinarrituta, saharar herriaren autodeterminazio-eskubidea defendatzen du, baita Marokoko Erresumak saharar lurraldea legez kanpo okupatu izana salatu ere.

Beste hainbat salaketa eta aldarrikapen

ere bere egiten ditu Debako Udalak eta kezka berezia adierazten du lurralde okupatuetan bizi diren zibil saharauiekiko. Ildo horretan, Europako erakunde eta gobernuak eta NBERi eskatzen die giza eskubideen arloko behaketa-ordezkaririk bidal ditzatela.

www.deba.eus atarian irakur daiteke mozioa bere osotasunean.

MAXI BAR

Lersundi, 28
Tel.: 943 191 206
Deba (Gipuzkoa)

Bar LOREA

“Orotariko tartak etxean eginak”

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



HERRIKOAK BERRIKETAN

BURDIN KURUTZ MENDI TALDEA

2019-2020ko ikasturtean, koronabirus delako madarikatu honek gure taldearen zereginetan bete-betean eragin du. Martxoko konfinamenduak erdi-erditik geldiarazi zituen ikasturteko ikasleen irteera guztiak. Berdin gertatu zitzaigun Mutriku, Ondarroa eta Markinako mendi taldeekin, nagusi edo helduekin, antolatu genituen 2020rako mendi irteerekin ere.

Uda ondoren, 2020-2021 ikasturteari begira, mendi irteerak antolatzeko zer nolako aukerak izango genituen dudaz beteta bagenbiltzan, laster errealitate are okerragoa etorri zitzaigun. Horrela, aurreko ikasturteko ibilaldi neurtua, Kanboko irteera, bi eguneko irteera (Orreaga aldera) eta Andutz Eguna bera airean geratu zitzaizkigun.

Aurrera egin behar genuen eta garbi geneukan baldintza horietan ezer gutxi egin genezakeela. Aurreko ikasturteko mendizaletasun eta grinari eutsi eta ikasle mendizale berriei aukera eskaintzekotan, beste zerbait asmatu beharra zegoen. Horrela bada, honako antolaketa moldea proposatu genuen:

Lehenengo eta behin, ohi bezala, irteerek errazak izan behar zuten. Hau da, desnibelak eta luzerak dauzkagun ikasleei egokituak.

Bigarren, mendi edo inguru oso ezagunetara izan beharko zuten: abiapuntua, bidea, gailurrak eta helmuga oso argi zutenak.

Abiapuntu eta helmuga bat bera izango zuten gehienek.

Hirugarren, joan-etorriak errazte aldera, Gipuzkoara mugatuko genituen ibilaldiak, gehienak Debatik gertu.

Baldintza horiek oinarri hartuta, egutegi bat osatu genuen eta eskolan eta mendira doazen ohiko gurasoen artean zabaldu. Hona hemen, beraz, 2020-2021erako proposatutako egutegia (abendutik aurrerakoak jaso ditugu zerrenda honetan):

Mendiak

- Abenduan: Erlo-Xoxote (Aittolatik)
- Urtarrilean: Kalamua (San Pedrotik edo Arratetik)
- Otsailean: Hirukurutzeta (Azkarate gainetik)
- Martxoan: Urbiako Enaitz (Arantzazutik)

-Apirilean: Ernio edo Gazume (Iturriozetik)

-Maiatzean: bi eguneko irteera (posible bada)

-Ekainean: Andutz Eguna (posible bada)


Beraz, Burdin Kurutzen irteeretara etortzen zaretenoi edo ikasturte honetan hurbildu nahiko zenuketenoi lerro haue-tatik kontuan hartzeko hainbat gauza gogorarazi nahi dizkizuegu:

Ikasturte honetarako egutegian proposatzen dugun zerrendako mendiak egin beharko dituzue hilabete bakoitzean, nahi duzuen egunean eta nahi duzuen jendearekin. Guk, froga gisa, mendi horretan ateratako selfiea edo argazkia gure WhatsAppera bidaltzea bakarrik eskatzen dizuegu (ez ahaztu, mesedez, argazkian agertzen diren umeen izenak adieraztea).

Jakin ezazue kontuan izango ditugula 2019-2020 ikasturtean egindako mendi irteerak. Horrela, Andutz Egunean ohiko opari banaketa egingo dugu, betiere egoerak uzten badigu. Horrez gain, ez ahaztu, egutegian ageri den modura, egoerak uzten badigu datorren urteko maiatzean bi eguneko irteera egingo dugula.

Animatu bada berriro gure mendietan barrena ibiltzera! Eta ea irteeraren batean elkar ikusten dugun!





MAITANE ETXANIZ

Bixi bixitxi

2020, gutako inork ahaztuko ez duen urtea, bukatzeaz dago.

Beste urte batzuetan ez bezala, heriotzari aurpegira begiratzea tokatu zait aurtten. Otsailaren 29an nire ama lo geratu zen, eta ez zen gehiago esnatu, martxoaren 6an hil zen arte. Ekainean, berriz, lagun baten heriotzak gogor jo gintuen. Familiako pertsona maitatu bat hil zen uztailean, lagun min baten amama duela gutxi eta aitaren lagun bat hilabete honetan.

Heriotzak beldurra ematen digu, orokorrean ez zaigu gustatzen egun batean denok hilko garela pentsatzea. Baina beldur gehienekin gertatzen den bezala, aurrean ikusten duzunean, mamu asko desagertzen dira.

Izan ere, bizitzak hasiera bat eta bukaera bat izango duela argi izateak beste zentzu bat ematen dio gure existentziari. Lehenago ala beranduago, egun hori iritsiko zaigu, eta garrantzitsua da beraz BITARTEAN zer egingo dugun pentsatzea; nola bizi nahi ditugun gertatzen zaizkigun urteak ala uneak.

Horregatik agian, urte xeble hau ez da hain txarra izan niretzat. Inoiz baino argiago izan dudalako bizitza bizi nahi nuela, bizitzaz gozatu, gozatu ahal dudana bitartean. Kalera irten, eguzkia hartu, lagunekin elkartu, maite ditudanak besarkatu, mugitu, ondo elikatu, barre egin, naturaz disfrutatu, musika entzun... Eta debeku hauek guztiak bukatzen direnean, gau oso bat dantzan pasatu nahi dut, herri honetako ala beste bateko taberna zuloan, goizeko argiek etxera joateko seinalea ematen duten arte.

Norberak erabaki dezala nola bizi nahi duen gertatzen zaiona, bakoitzak aukeratu ditzala bere zoriontasunerako osagaiak. Baina, beldurrak alde batera utzi eta nire lagun ondarrutar batek esaten duen bezala... BIXI BIXITXI!

Olentzero eta Mari Domingiren bisita, ezohikoa




Aurten Olentzero, Mari Domingi, astoa eta beren laguntzaileak ezin izango dira aurreko urteetan bezala herriko kaleetan zehar haurrekin gabon kantak kantatuz ibili. Hala ere, Olentzero eta Mari Domingi aurtengoan ere Luzaro ikastetxera iritsiko dira, baita kale egin gabe, ume guztien etxeetara ere, modu birtualean izanagatik. Abenduaren 24an zabalduko da bideoa, 12:00etan, ondorengo estekan: www.labur.eus/olentzeroetamaridomingi2020.

Jendetza biltzen duten garaiotako beste ekimenak ere moldatu egin behar izan dituzte. Kabalgataren kasuan, postontzia jarriko da eliz atarian umeek erregeei beren gutuna helarazteko; erregeak ere modu birtualean iritsiko dira etxe orotara.

Zero Feriari dagokionez, aurten ez da bere horretan egingo, baina, horren ordez, abenduaren 19an herriko ekoizleen azoka berezia izan zen Simon Berasaluze enparantzan. Urteberriko ohiko idi-probarik ere ez da izango aurten.

Badatoz gabonak, aurrekaririk gabekoak aurtengoan



Ate-joka ditugu gabonak; aurtengoak, ordea, ez dira orain artekoak bezalakoak izango, izan ere, COVID-19a gainditzea

oraindik lortu ez dugunez, neurri eta mugak izango ditugu berriz nonahi. Abenduaren 2an egindako bileran adostu zuten Espainiako Gobernuak eta autonomia erkidegoetako osasun agintariak gabonei begirako plan bateratua.

Horien aurretik, Jaurlaritzak abenduaren 12tik aurrera malgutu egin ditu urriaren 26tik eta azaroaren 6tik indarrean ziren neurriak. Alde batetik, udalerrietatik irteteko debekua kendu eta probintziara zabaldu du mugitzeko muga. Bestetik, ostalaritzak atek ireki ahal izan ditu. Terrazez gain, jatetxe zein taberna barruan edukiera % 50era arte baimendu da. Erabiltzaileak mahaiaren bueltan elkar daitezke, baina debekatuta dute zutik edo barran kontsumitzea. Hala ere, 20:00etarako lokalek itxita egon behar izaten dute.

Gabonetarako gomendio orokorra elkarrekin bizi diren pertsonak soilik biltzea eta harreman sozialak ahalik eta gehien murriztea da. Gainerakoan,

egun seinalatuetan gehienez ere hamar pertsona bildu ahal izango dira, haurrak barne. Horrez gain, gabon eta urte zahar gaueetan (abenduaren 24 eta 31) goizeko 1:30era arte ez da izango norbere etxean egon beharrik.

Kontuan izan beharko da, bestalde, abenduaren 23aren eta urtarrilaren 6aren artean senitartekoak eta lagunak bisitatzeko ohiko desplazamenduak ere murriztuta egongo direla. Subjektuaren senitartekoen ohiko bizilekura joateko soilik desplazatu ahal izango da. EAEn neurri hori gogortu egin da, abenduaren 23tik 26ra eta hilaren 30etik urtarrilaren 2ra soilik irten ahal izango da EAetik edo bertara joan.

Bertan behera geratuko dira, bestalde, Olentzerori ongietorria emateko antolatzen diren ekitaldi presentzialak ohiko formatuetan, egitekotan "estati-ko" izan daitezela eta prebentzio eta segurtasun neurriak bete ditzatela aholkatzen da. Hiru Erregeen kabalgata berdin, eta oro har urte sasoi honetarako tradizioak "agintzen" dituen bes-telako ospakizunak.

Kirol alorrean, berriz, azken gomendioa da San Silbestre gisako lasterketa herrikoiak ez egitea.

iritzia



**NEREA
LAZKANO**

Hitza bera ez da berezia, bere esanahia bai, ordea. Gure bizitzan, gure egunerokotasunean, LAGUNAK ondoan izateak guztia aberatsagoa egiten du, momentu onak handitu eta txarrak txikitzen. Bizitzan zehar bide-lagun ugari izango ditugu, eta horien artean LAGUNEK toki berezia izaten dute. Eskolan, udan, bidaia batean, festetan... ez dakigu noiz gertatuko den, baina bizitzan horren garrantzitsuak izango diren pertsona horiekin *klik* egiten dugunean, gure bizitza aldatu egiten da bat-batean, ospatu edota sufritu beharreko guztirako familia ez ezik pertsona gehiago ere izango dugulako gure ondoan; horrek gure bihotza betetzen du.

LAGUNEN artean, badaude gutxi batzuk bihotzaz gain arima ere betetzen digutenak eta

orduan konturatzen gara benetan zorionekoak garela. Gauza gehiago edo gutxiago izan ditzakegu, lan-arloan arrakasta handiago edo txikiagoa, gizarte mailan gorago edo beherago egon gaitzke, baina gozatu, sufritu, irabazi, galdu, barre edo negar egiteko orduan LAGUNAK ondoan baditugu, ezer falta ez zaigula eta mundua gure eskuetan izango bagenu bezala sentituko gara.

Unibertso osotasunean puntu ñimiño bat gara, denboran, neurtu ezin den zati xume bat, baina LAGUNAK alboan ditugunean, gure funtsa mugagabe bihurtzen da.

Hitz hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiet nire LAGUNEI, nire alboan egoteagatik, zoriontsu egiten nautilako.

Lagunak

Beldur Barik, elkarretaratzea eta kultur ekitaldiak egin dira azaroaren 25aren harira



Sei ekitaldiz osatutako egitaraua antolatu da aurreko Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira.

Azaroaren 13an, Beldur Barik lehiaketaren sari-banaketarako ekitaldian aforoa bete zen eta honako bideoek jaso zuten saria: 1. kategorian (12-13 urte) *Beldur barik 4* lanak. Egileak: Luka, Ekain, Josu, Denis, Xuban eta Roke. 2. kategorian, berriz, (14-18 urte) *Emakumea naiz* lanak. Egileak: Julene, June, Nahia, Miren, Marina, Gadea, Elene Ramirez, Elene Carrillo, Maren,

Malen, Garazi, Ane, Maddi eta Enara.

Amaia Zinkunegiren *Otsandreak korrika* ipuin-kontaketarako jendea aretoa sartu ezinda geratu zenez, edukiera mugatuarengatik, beste saio bat egin zuen, eta hartan ere aforoa bete egin zen. Azaroaren 25eko mobilizazioan Foruen plaza alderik alde bete zuten bertaratu zirenek (goian irudia) eta, bi egun beranduago, Itziarren *Esnatu naiz* kabareta ikusteko sarrera guztiak agortu ziren.

Azkenik, haurrentzako berdintasunaren inguruko herriko kontalarrien ipuinek 20tik gora entzule izan zituzten.

Deba eta Zumaia arteko garraioa autobusez

Deba eta Zumaia arteko sei tunel berritzeko lanak direla eta, Euskal Trenbide Sareak eten egin du Euskotrenek eskaintzen duen zerbitzu erregularra eta autobusez egin behar da bi herrien arteko bidea. Lan horien helburu nagusia Santa Katalina, Itxaspe, Atxuribi, Sakoneta I, Sagarbide eta Baiona tunelek dituzten egiturazko arazoak konpontzea da. Obrak egiteko bi hilabeteko epea dago ezarrita, eta esleitutako aurrekontua 1,5 milioi eurokoa da, BEZa aparte.

Azaroaren 24an eten zuten tren zerbitzua, eta bi hilabetez gutxi gorabehera,

lanegunetan, Deba eta Zumaiaiko geltokietan garraio aldaketa egin behar dute bidaiariek, bi noranzkoetan. Zerbitzuen maiztasuna ere handitu dute.

Larunbat, igande eta jaiegunei dago kienez, Bilboko noranzkoan, Zumaia-Kukullaga (Etxebarri) arteko ibilbidea autobusez egiten da, eta ondoren trenez jarraitu. Donostiako noranzkoan, berriz, Deba-Zumaia arteko ibilbidea egiten da autobusez, eta Zumaian berriro hartzen dute trena bidaiariek.

Ordutegiei buruzko informazio gehiagorako: www.euskotren.eus.

TAO tiketa derrigorrezkoa Gudarien plazan

Gudarien plazan aparkatzeko derrigorrezkoa da tiketa jartzea joan den azaroaren 30az geroztik. Herrigunera, enkarguak, tramite administratiboak... egitera joan behar duten pertsonak aukera izango dute autoa bertan aparkatzeko. Modu honetan bilatzen da herrigunera lehentasuneko jarduerak egitera joan behar duten pertsonak aukera izan

dezatela autoa bertara gerturatzeko, eta aparkalekua dinamikoa izan dadila.

30 minutuz utzi ahal izango da kotxea bertan. Doakoa da zerbitzua, baina tiketa hartzea derrigorrezkoa da. Ordutegia aurretik zegoen berbera izango da: astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; larunbatetan, 9:00etatik 13:00etara.



NEREA ARRIZABALAGA

Furyak airera

Buklean daramat Eneritz Furyak-en diskoa kotxean Itziariko kontzertuan entzun nuenetik. Bere zuzeneko ahotsak txunditu ninduen, diskoa erosi eta letrei erreparatzen hasi nintzen. Orain belarrirentzat egokia ez den bolumenean daramat, batera abesten joateko.

Garraxi egiteko gogoa pizten dit, akaso azken hilabeteetan barruan pilatu dudana egonezina askatzeko. *Egia eta gezurra katilu berean nahasteko...* 9 hilabete katilu beretik bazkatzen, edonori emango lioke tripako mina. Informazioaren aroan egonik badirudi inoiz baino desinformatuago gaudela, agian gehienon katiluak iturri beretik betetzen direlako.

Errezeloa dut azkenaldian gure gorputzaren funtzionamenduz gutxi dakigula, eta dakiguna desegindako puzzlea dela, ez, ordea, garen sistema konplexuaren argigarri. LHtik beharko luke ikasgai, baina akaso ez da interesatzen, jakituriak erabakitze ahalmena baitakar; ezjakintasunak obedientzia.

Pasteur eta bere mikroorganismoen infekzioaren teoria irakasten digute, gaur egungo medikuntza ofizialaren oinarria, ez, ordea, garaikide izan zuen Antoine Bechamp-ena. Lehenak, kimikari eta enpresaria, industri iraultza betean, farmazia negozioaren babesa jaso zuen; bigarrenak, mediku, kimika-irakasle eta farmazialaria, garaiko mediku eta zientzialari gehienena. Norberak hausnar dezala zergatik gailendu ote zen oinarri zientifiko gutxi baina interes ekonomiko handiko teoria. *Baina gezurrek badute egiaz jakintzarik.*

Baretuko al zait letaginak erabiltzeko gogoa? Izango al naiz gai zinema hutsen hondakiñez eraikitze geroa? Nik letaginak zorrotzen jarraituko dut marrazten dituguten etorkizun ilunaren aurrean.

Hogei urte dira eraikin huts bat okupatu eta Gaztetxe bilakatu zutenetik

Hogei urte pasa dira jada herriko gazte talde batek Itur kaleko eraikin huts bat okupatu zuenetik. Debako Gazte Asanbladak (DGA), "inflexio puntu garrantzitsua" izan zen ekintza horren urteurrena gogoratzuz, ekimen ezberdinez osatutako egitaraua antolatu du abenduan. Urtemuga aitzakia hartuta, atzera begira jarri eta orain arteko ibilbidearen errepaso txiki bat egin nahi izan dugu lerrootan. Horretarako, "Debako Gaztetxea bizirik!" (2006) dokumentalean jasotako adierazpenak zein Asanbladako kide izandakoen testigantza batzuk jaso ditugu.

Zumardiko frontoi-etxeke lokal batetik, Maxpeko errepide ertze-ko eraikin koloretsu enblematikora; okupazio eta indarberritze bat tartean. Hona aroz aro, belaunaldiz belaunaldi, Gazte Asanbladak bere sorreratik egindako ibilbidearen inguruko zenbait zertzelada:

Gazteen Elkarte

90. hamarkada amaieran, hainbat urtez herriko gazteen erreferentziako elkargune izandako Gazteen Elkarte itxi zuen Debako Udalak. Garai hartan Asanbladako kide izandako Aitor Larramendiren hitzetan, "Gazteen Elkarte lokal bihurtu zen, kuadrilla bakoitzak bere txokoa hartzen zuen eta, Asanbladak ez zue-nez funtzionatzen, Udalak egoera hori aprobetxatu zuen". Espazio fisiko baten faltak, ordea, ez zuen belaunaldi gazteenen ilusioa itzali eta Gazte Asanblada berrantolatzea erabaki zuten, martxan jarritako dinamika berria helburu nagusi bati begira jarritz: gaztetxe berri bat lortzea.

Okupazioa

Udalak hainbat ezezko eman ondoren, "alternatiba eskaintzarik ezaren eta borondate faltaren aurrean", okupazioaren bideari ekitea erabaki zuten. Halaxe oroitzen dute garai hura "Debako Gaztetxea bizirik!" dokumentalean parte hartu zuten kideek.

Gauzak horrela, "barne eztabaida askoren ostean", gazte talde batek 2000. urteko abenduaren 26an Itur kalean zegoen *Batzoki zaharra* okupatu zuen. Albisteak ezustean harrapatu zituen hainbat eta hainbat herritar, baina denbora gutxian jende ugari agertu zen lanerako eta parte hartzeko prest. Ondorioz, lan ordu asko tarteko, hainbat urtez hutsik egon zen eraikin ezagun hura herriko proiektu eta ekintza ezberdinen babesleku bihurtu zen.

DGAko Aimar Lasa kide ohiaren iritziz, "frontoia, taberna, entsegu-gela, antzerki, kontzertu zein bazkari herrikoiak... Gaztetxearen ibilbide eta funtzionamenduan, autogestioa izan da garrantzitsua. Lana eginda gauzak lortzen direla frogatu dugu".

"Gaztetxea erre ziguten, ilusioa ez!"

Suhiltzaileen argi urdin eta sirena-hotsak izan ziren 2003ko martxoaren 8ko iratzargailu herritar askorentzat. Gaztetxean aurrez lapurretan harrapatu zuten gazte batekin izandako tirabirak medio, Gaztetxea erre eta hiru urteetan martxan jarritako proiektuak kiskali ziren. Lokalik eduki ez arren, asanblada mantendu eta "gogo handiagoarekin" jarraitu zuten lanean, dena den. Halaxe oroitzen zuen garai hartan Asanbladako kide zen Gilen Garcia: "Gune fisiko baten faltan, egin genituen gauza guztiak kalean funtzionatzeko egin genituen: parrila, txosna...".

Dokumentalean onartu bezala, garaiko kideentzat Itur kaleko Gaztetxearen okupazioa izan da azken urteetako "ekintza garrantzitsua". Larramendiren esanetan, "horren ondorio zuzena izan



2003/03/08



2004



2007



2015

dira Asanbladaren berrantolaketa, bertan antolatutako ekintza guztiak, Gaztetxea erre eta gero kalean egin diren ekintzak... eta, batez ere, beste Gaztetxea lortzeko tresna bat izan da okupazioa".

"Ez da matadero, Gaztetxea da!"

Gaztetxeak eta Gazte Asanbladak aurrera egin zuten euren jardunean eta, aurreko Gaztetxea kiskali eta hamar hilabetera, 2003ko abenduaren 24an, Udalak Maxpe kaleko hiltegi zaharra Gazte Asanbladari lagatzeko erabakia hartu zuen. Hainbat hilabetez luzatuko ziren obra eta egokitzapen-lanak egin ondoren, 2004ko uztailaren 31n ireki zituen ateak Gaztetxe berriak.

"Ametsei atek irekiz!"

Harrezkero, bidea eginez jarraitu dute Asanbladak eta Gaztetxeak berak urte hauetan guztietan. Gorabeherak gorabehera, adinean aurrera joan ahala, kide zein erabiltzaileen belaunaldi aldaketekin batera, proiektu eta jarduerak ezberdinak sortu eta garatzeko balio izan du.

"Argi dago Gaztetxea herrian sortutako ekimen ezberdinen epizentroa izan dela", erantsi du hainbat urtean Asanbladan ibili den Alex Turrillasek. "Asanbladaren babesik gabe, ezinezkoa litzateke Debarock Kolektiboa, Akerzulo Espeleologi Elkarte, Txosna Batzordea, Galerna Festa, Negudak, Deba-Reus topaketa, Jazzez Blai edo Baratz Taldea bezalako proiektuak martxan jartzea". Bere ahotan, "gazteen artean hainbesteko sormena eta elkarlana eragin dituen espazio honetan bizitako esperientziek hurrengo belaunaldiak ere elikatuko dituzten susmoa dut, ea hala den".

“Talde polita osatu dugu Asanbladan, nahiko anitza, eta erreleboa badago; bide honetan jarraitu nahiko genuke”

“Asanbladaz asanblada, aurten bi hamarkada” lemapean, Debako Gazte Asanbladak hainbat ekitaldi egin ditu asteotan, bizi dugun ezohiko egoerak egitaraua baldintzatu badu ere. Ospakizunez eta Asanbladaren egungo egoeraz galdezka joan gatzazkie.

Zer moduz joan dira urtemugarako antolatutako ekitaldiak?

Egindakoak ondo joan dira, baina ezin dugu gauza bera esan egin ditugun plan guztiekin. Urtemuga oparoa prestatzen genbiltzan COVID-19aren harira hartutako neurri berriak indarrean sartu zirenean eta azkenean ekintza asko bertan behera gelditu dira, hala nola antzerkia eta kontzertu ezberdinak.

Zein da Asanbladaren gaur egungo egoera eta funtzionamendua?

Egun sei kide biltzen gara erregulari, nahiz eta inguruan laguntzeko prest dagoen sare informal bat ere badugun. Funtzionamenduari dagokionez, ezohikotasun honetara moldatu beharra badugu ere, betiko legez asanbladak egiteko astero biltzen gara, eta ekintzak aurrera eramateko orduan gehiagotan gelditzen gara lan egiteko.

Zer helburu edo erronka nagusirekin aritzen zarete?

Gaztetxe eta gazte asanbladak autogestioari loturiko espazioak dira eta bide horretan aisialdiari zein egungo errealitatean aurkitzen ditugun arazoei begira jarduten dugu gehienbat. Helburua funtsean unean uneko ekintzak kolektiboki aurrera eramatea iza-



Arg.: Martin Lores

ten da: adibidez, gogoko talde baten kontzertua, tailer ezberdinak, hitzaldiak, formakuntza saioak edota ekintza politikoagoak ere bai. Horrez gain, herriko gazteek antolakuntza kolektiboan lehen esperientziak bizitzea eta elkarlanerako gaitasunak zein bestelako balioak barneratzen joatea ere bada gure helburuetako bat.

Uneotako zailtasun, oztopo, gabezia... nagusiak zeintzuk dira?

Epe motzera ezohiko egoera hau eta honek dakarren ziurgabetasuna aipatuko genituzke. Luzera begira, aldiz, agian desmobilizazioa eta horrelako proiektuetan parte hartzeko eta konpromisorako joera beherakorra. Dena den, fenomeno hau nahiko orokortuta dago azken urteotan Euskal Herri osoko herri mugimenduetan; Deba ez da salbuespena.

Besterik nabarmendu nahi? Zuena da azken hitza...

Oztopoez hitz egin dugu, goazen indarguneei buruz aritzera. Asanbladan talde polita osatu dugu, badago erreleboa, eta esan genezake nahiko anitza dela osaera. Bide honetan jarraitzea nahiko genuke, gazte asanblada batek izan behar duen moduan, alegia.

Azkenik, interesa duen gazte oro Asanbladara gonbidatzea gustatuko litzaziguke, probatu ezaren damua izan baino saiatzea eta ez gustatzea hobe baita, eta behin animatuta... Batek daki! Agian hurrengo elkarrizketako argazkian aurpegi berriak izango ditugu. Ostiraletan 22:00etan biltzen gara salbuespenak salbuespen (uneotan kasu), baina interesa edo edozein zalantza izanez gero, idatzi lasai debakogaztetxea@gmail.com helbidera. Animatu! Bidea ez da bakarrik egiten eta!



IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak

Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA

Deba-Itziar

BIRA



AZAROKO BIRA | SARIDUNAK



Alazne Txurruka
Maider Zubikarai
Julia Ron
Lukax Dorronsoro
Edurne Iriondo



Miren Lore Urkiri
Karlos Larramendi
Kontxi Mtz. Uribarren
Leire Diez
Alaitz Eskudero

Iñaki Saenz
Manex Astigarraga
Kike Sarasketa
Maite Aperribai
Iker Zubikarai

*Bonoak 2020/12/31 baino lehen gastatu beharko dira, Deba-Itziarko komertzioetan

ABENDUKO BIRA:



1. Zein urtetakoa da San Josepe kaleko gurutzea?



4. Noiz iritsi zen trenbide sarea gure herrira?

A) 1917 D) 1865
B) 1893 E) 1882



2. Nor egin zuen Itziarko Santutegiko erretaula?

A) Simon Berasaluze D) Jorge Oteiza
B) Patxi Albizu Soarte E) Andres de Araoz



5. Nola deitzen dira Lapari hondartzako itsaslabarretan azaltzen diren mineral noduloak?



3. Zein da ezkerreko argazkian agertzen den kable gaineko dantzari lasturtarra?



6. Zein da ezkerreko argazkian agertzen den musika taldea?

A) Brigade Loco D) Egurra ta kitto
B) Huntza E) Strikers

PARTE HARTZEKO:

www.labor.eus/BIRA_abendua

Erantzun gehien asmatzen dituztenen artean

Parte hartzaile guztien artean

Deba-Itziarko komertzioetan gastatzeko
40 euroko bost bono
banatuko dira

Deba-Itziarko komertzioetan gastatzeko
20 euroko hamar bono
zozketatuko dira

Erantzunak bidaltzeko azken eguna: **urtarrilaren 7a**

Irabazleen izenak urtarrileko *Berriketan*-en argitaratuko dira. **Animatu!**

Literatur lehiaketari dagozkion sariak banatu dira Mendatan

Mendata institutuak eta Zuhatza Euskara Elkarteak literatura lehiaketa antolatute aurren ere elkarlanean, eta irabazleek Euskararen Nazioarteko Egunean jaso zituzten sariak institutuan. DBHko ziklo bakoitzean, bi sari nagusi banatu dira; ebook bat jaso dute opari lehenengo saria irabazi dutenek eta Arkatzen erabiltzeko 60 euroko opari txartela bigarren saria lortu dutenek. Sariez gain, hainbat lanek aipamen berezia izan dute aurren; ziklo bakoitzeko bi lanek, hain zuzen.

Epaile lanetan Nagore Dorronsoro, Amets Carrillo eta Izaro Aulestiarte aritu dira. Haien erabakiz, lehen zikloan (DBHko 1. eta 2. maila) Mattin Agirrezabala gailendu da "Baserritar berria" izenburuko lanarekin, Nere Barrerak jaso du bigarren saria "Zulatutako galtzak" lanarekin, eta azkenik, aipamen berezia Marina Aceñak eskuratu du "Akramen bidaiak" lanari esker. Bigarren zikloan (DBHko 3. eta 4. maila), berriz, Ane Gonzalez nagusitu da "Bi ur tanta" izenburuko lanarekin, Amalur Poncek jaso du bigarren saria "Azken besarkada" idazlanarekin eta Ainhoa Loidik eraman du aipamen berezia "Gerrako umeak" idazlanari esker. Aurtengo egoeran beharrezko neurriak hartuta eta publikorik gabe



banatu dira sariak. Horregatik, laster Zuhatza Euskara Elkartearen YouTube kanalean partekatuko da sari-emate ekitaldia, bertan irakurritako lan sarituak nahi duenak disfrutatu ahal izateko. Era berean, *Berriketan*-en ere izango dira irakurgai, urtero bezalaxe.

823 lagunek hartu du parte Euskaraldian Deban eta Itziarren

Euskaraldiaren bigarren edizioa amaitu den honetan, hauek dira Deba eta Itziarren azaroaren 20tik abenduaren 4ra bitartean Euskaraldian parte hartu duten herritarren kopuruak: guztira 823 lagun izan dira, Deban 633 eta Itziarren 190. *Ahobizi* eta *Belarripresten* kopuruei erreparatu gero, berriz, Deban 520 izan dira *Ahobizi* eta 113k hartu dute *Belarriprest* rola. Parte hartzaileen generoari begiratu gero, emakumeak 433 izan dira, gizonak 195, eta ez binarioak bost. 16-30 adin tartean 132 izan dira parte hartu dutenak; 31-50 adin tartean, aldiz, 99 eta, azkenik, 51tik gorako herritarren artean 53.


Bestalde, Euskal Herri mailan, aurtengo Euskaraldia bukatuta, «aldatutako dinamikei ahalik eta gehien eusteko» deia egin dute eragileek. Lortutako emaitzak, *ariguneen* ekarpena eta «lankidetzaren eredu» goraiatu dituzte. Aurtengo Euskaraldia «ariketa sozial masiboa» izan da, Euskaltzaleen Topaguneko Kike Amonarrizek esandakoaren arabera. Orotara, 179.780 lagunek eman dute izena.

Jon Alonsoren "Naparra: kasu irekia", Tene Mujika Bekaren azken fruitua

"Naparra: kasu irekia" liburua plazaratu du Jon Alonso (Iruñea, 1958) idazleak, Debako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatutako Tene Mujika Bekaren laguntzaz.

Jose Miguel Etxeberria Alvarez "*Naparra*", Komando Autonomo Antikapitalistekako militantea eta Ipar Euskal Herrian errefuxiatua, 1980ko ekainaren 11n desagertu zen, norbaitek bahitu eta eraila. Orduetik ez da haren gorpurik agertu, ez desagertaren egileez edo xehetasunez berri zehatzik jakin.

Jon Alonsok, era bateko eta besteko iturrietara joz, ikerketa zabal eta sakon bati ekin dio, kasu horretaz dakigun guztia bilitzeko, baita suma dezakeguna iradoki eta ilunpean dagoena gogorarazteko ere. Indarrez desagerrarazi zuten borrokalari gaztearen historia ez ezik, semearen (eta anaiaren) arrastoaren bila berrogei urtez jardun duen familiaren historia ere landu du idazleak "memoria astintzera" datorren lan honetan.



ASKETA, S.L.
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:
Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460
E-mail: asketa@telefonica.net
www.asketa.net

ALMACÉN:
Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9
20850 MENDARO (Gipuzkoa)

K21
KALITATEA
Empresa Registrada Nº 2/05/049
NIVEL 2

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza kalea, 3-4 behe - 31 P.K.
20820 DEBA (Gipuzkoa)

Tel.: 943 192 249
Mug.: 618 214 282

sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

atari
etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURAK, ABOKATUA
Lersundi 1, behe 20820 - DEBA
Tel: 943192263
www.atarideba.com

“Herritar gehiagoren babesa lortzea izango da egoera honi buelta eman eta proiektu berriak martxan jartzeko gakoa”

Bazkide kanpainari ekin dio aurtengo udazkenean Zuhatza Euskara Elkarteak; haren nondik norakoak eta etorkizuneko asmoen berri jakiteko, elkarteko Itziar Arana lehendakariarekin eta Alex Turrillas koordinatzailearekin aritu gara solasean. Hainbat herri-dinamikatan arituak dira biak ala biak eta euskalgintzan elkarrekin dihardute gaur egun. Hiru urte pasatxo daramatza Aranak lehendakari karguan, eta martxoaz geroztik dabil Turrillas koordinatzaile lanetan.



Arg.: Martin Lores

Zergatik antolatu duzue kanpaina?

Alex Turrillas (A.T.): Hausnarketa saio baten ostean, urteko ohiko ekimenaz gain aurrera begira hainbat erronka garrantzitsuri heltzeko helburua ezarri genion taldeari; horregatik, bazkide kanpaina martxan jartzea aurreikusita zegoen jadanik. Hala ere, egungo osasun-krisiak kanpainaren beharra are nabarmenago laga digu. Izan ere, aurtengo antolatu behar genituen ekimen asko bertan behera geratu edo moldaketak jasan dituzte eta elkartearen autofinantzaketarako ere balio zuten ekimen horiek ez egiteak arazo eko-

nomikoak ekarri dizkigu. Beraz, argi dugu kanpainari bultzada berezia eman eta herritar gehiagoren babesa lortzea izango dela egoera honi buelta emateko gakoa.

Itziar Arana (I.A.): Hori da, *Berriketan*-en digitalizazioaren apustuari aurre egiteko, besteak beste, behar-beharrezko izango dugu babes hori.

Zer azpimarratuko zenukete euskarak Deban bizi duen egoeraz?

I.A.: Gure udalerria ingurune euskaldunean kokatuta egoteaz gain UEMAko partaide ere bada. Gainera, 40 urte baino

gehiago dira ikasketak D ereduari dagozula eta hori dena kontuan hartuz, debarrak hizkuntza-egaztuta altua izatea logikoa da; ikerketek diotenez, erabileran gabiltza eskas. Hala ere, aipagarria da Euskaraldiaren baitako hausnarketarako lehen saioan argi geratu zela erabileraren inguruan dugun pertzepzioa askoz negatiboagoa dela datuek diotena baino. Oraindik euskararen kaleko erabilera oso baxua dela, edo gaztelania dela nagusi uste da, baina Soziolinguistika klusterreko azken azterketen arabera, euskarak gaztelaniak bezainbesteko presentzia

duen udalerria da Deba. Dena den, euskara nagusi den udalerriz izatera egin behar genuke salto. Iruditzen zait aurtengo Euskaraldian eraturako 77 ariguneez egunerokoan euskaraz jarraituz gero pixkanaka erabilerak gora egingo duela, *arigune* gehiago sortuko direla eta, horrela, euskararen erabilera arlo guztietara hedatuko dela, naturaltasunez.

Eta zertan lagundu dezake Zuhatzak egoera hori iraultzen edo hobetzen?

I.A.: Elkartean sorreratik (1997) egin dugun moduan jarraituko dugu lanean: euskararen erabilera bultzatu eta Deba herri euskaldunagoa egiteko helburuarekin. Horretarako, batetik, euskal hedabideen aldeko apustua egiten dugu *Berriketan* aldizkaria hilabetero kaleratuz (250 zenbaki baino gehiago). Bestetik, euskalgintzan ere lanean dihardugu, Mintzalaguna, lehiaketak (gazteei zuzendutako literatur lehiaketa, kasu), eta aisialdi alorreko ekitaldien bitartez (Kolore Anitzen eskutik). Azkenik, kulturgintzan eta herrigintzan ere aritzen gara, Euskal Jaia, hitzaldiak, eta haur zein helduentzako ekitaldiak antolatuz eta euskara eta euskal kultura ardatz duten herri-ekimenean aktiboki parte hartuz (Olentzero eta Mari Domingiren etorrera, Euskaraldia, Korrika, Kultur Mahaia, Kultura eta euskara eta Hezkuntza Batzordeak...).

Zenbat bazkide ditu gaur egun elkarteak? Zergatik merezi du Zuhatzako baz-

kide izatea?

I.A.: Sorreratik fideltasunez mantendu ditugu 250 bazkide inguru. Zuhatzak elkarte txikia izanagatik, azken ia 25 urte hauetan herri euskaldunagoa izateko haziak erein eta fruitu batzuk ikusten hasita gaudelako, baina dudarik gabe, oraindik zeregin horretan egin beharreko lan eta apustuak baditugulako merezi du bazkide izatea. Horien artean aipatuko nuke une honetan esku artean dugun *Berriketan*-en ahizpa digitalaren sorrera, euskarari bizi-bizi eusten eta garai berrietara egokitzen lagunduko duena. Zergatik izan bazkide? Herri euskaldun batekin amesten baduzu hori lortzeko bidean aurrera zuzen goazelako.

"Herri euskaldunagoa izateko zeregin horretan egin beharreko lan eta apustuak baditugulako merezi du bazkide izatea"

Zer abantaila ditu euskara elkarteko bazkide denak?

A.T.: Herriko euskalgintza laguntzeaz gain, zuhatzakideek hainbat abantaila izango dituzte: prezio bereziak elkarteko produktu eta emanaldietan, zozketetan parte hartzeko aukera, *Berriketan* etxean jasotzea (paperezko edizioan eta formatu

digitalean), lehenetasuna kopuru mugatu-ko jardueretan edota lan-deialdietan...

Bazkide kanpaina irailean abiatu zen. Kanpainak dirauen artean ekimenik egitea aurreikusita al duzue?

A.T.: Egungo egoeran ekimenak antolatzea ia ezinezko bihurtu den arren, irailetik hona hainbat izan dira gure kabuz zein herriko beste eragile batzuekin batera elkarlanean antolatutako ekintzak; *Boteprontuan* kultur jaialdia, institutuko ikasle- en literatur lehiaketa, Deba-Itziar Bira...

Era berean, urte amaiera ere elkartearen kaleko presentzia handitu eta bazkide kanpaina hauspotzeko aprobetxatu nahi dugu. Azken asteotan egin bezala, gabonetako egun jakinetan udaletxeko arkupe- etan Zuhatzaren postu informatiboa jarriko dugu, errifak eta kamisetak saldu eta bazkide berriak lortzeko asmoz. Era berean, duela hilabete batzuk bertan behera laga behar izan genuen Laburbira euskarazko film laburren zirkuituko emanaldia ere izango dugu azkenean, abenduaren 26an, 18:30ean, Kultur Elkartean.

Interesa duena nola egin daiteke elkarteko bazkide?

A.T.: Bazkide egiteko bide ezberdinak zabaldu ditugu: gabonetan jarriko ditugun postu informatiboetan, Zuhatzaren lokalean (Ifar kalean, astelehenean ostiralerara 9:00-13:00) eta online ere bai, www.labur.eus/Zuhatzak_EginBazkide estekan. Animatu! Euskeraz bagera!

Laburbira

Euskarazko film laburren XVII. zirkuitua - 2020

 GAU BELTZA <small>Euskarazko Topagunea</small>	 URAK DAKARRENA <small>Mariñ Taldea</small>	 ANTI <small>Josu Martinez</small>
 TIGRE BAT <small>Amalia San Sebastian</small>	 PIL PIL <small>Kristina Zorita</small>	 MAMARRO <small>Beñ Iza Tolosa</small>
 KATEAK <small>Yolanda Mazkaran</small>	 JANZI BAT ETA PRIXT <small>Katalana Eyherasaboa</small>	 HARRIRA HERRIA <small>Dirnegaz Kultur Elkarteak</small>



AMALIA SAN SEBASTIAN
Zuzendariarekin solasaldia

DEBA
Abenduak 26, larunbata
18:30 | Kultur Elkarteak






EKHI ETXABE:

“Asko gustatzen zait errugbia eta oso gustura nago taldean, oso harreman estua dugu geure artean”

Lagun batek animatuta murgildu zen Ekhi Etxabe errugbiaren munduan eta gustura dabil harrezkero. Hamahiru urte ditu itziartarrak eta Mendatako ikaslea da



Noiz edo nolatan hasi zinen errugbian?

Iazko denboraldi hasieran hasi nintzen errugbian entrenatzen. Lagun batek animatu ninduen eta, lehenengo entrenamenduaren ondoren, jarraitzea erabaki nuen. Taldean oso lagun onak aurkitu nituen eta elkar errespetatzen dugu.

Zerk edo nork inspiratu zintuen?

Ez dut izan inspiratu nauen pertsonarik, baina, esan bezala, lagun batek eraman ninduen errugbia lehen aldiz praktikatzera.

Zergatik aukeratu zenuen errugbia?

Egia esan, errugbia ez nuen arrazoi konkretu batengatik aukeratu. Errugbia ez da asko ikusten den kirol bat. Hala ere, txikitan Debara joaten ginenean errugbian jokatzeko

genuen eta oso ondo pasatzen nuen.

Jarraitzea aurreikusten duzu?

Bai, gogo handia daukat jokatzen jarraitzeko, baina koronabirusarekin eta horrekin denarekin entrenamenduak bertan behera gelditu dira. Jarraitzeko gogo handia daukat eta noiz bueltatuko zain gaude.

Gustura zabilta? Zergatik?

Oso gustura nago eta han barruan oso-oso lagun onak aurkitu ditut; ez dakit nola esan, baina familia bezalako bat aurkitu dut. Oso ondo sentitzen naiz taldekoekin, haiek errespetatzen naute eta nik ere errespetatzen ditut. Oso erlazio ona daukat, batez ere kideekin, ez dago gaizki erortzen zaidan inor, oso gustura nago eta asko gustatzen zait. Gainera, oso harreman estua dugu taldean. Azken finean,

errugbia horretan datza: taldean egiten da guztia, taldeko batek gaizki egiten badu, talde guztiak egiten du gaizki, eta horretan datza gure arteko konfiantza.



Prensa tailerra 2020-2021

Maren Aramburu, Ekaitz Aperribai, Ainhoa Loidi, Maddi Txurruka, Adur Aramburu, Unai Portero, Enara Oruesagasti, Julene Perez, Jon Etxeberria, Malen Formariz, Oier Becerra, Oinatz Urbietta, Josu Corrius, Xabi Arakistain eta Sara Osa.

Koordinatzailea: Ainhoa Urkiola

laguntzailea:



babesleak:



MENDATA ERE ARIGUNE IZAN DA EUSKARALDIAN

Duela hilabete bigarren aldiz ekin zitzaion Euskaraldiari eta Mendata institutua ere eremu garrantzitsua izan zen arigune gisa jardun zuen heinean, euskaraz lasai hitz egiteko gune bezala, alegia.

Irakasleak hor ibili ziren, txaparekin soinean, azaroaren 20tik abenduaren 3ra arte. Gehienek, ahobizi txapa erabili zuten, baina baten batek *belarriprest* ere bai. Dena dela, irakasleek ez ezik ikasleek ere egin zuten beraien ekarpena. DBH 1. mailakoek plastikan euskararen aldeko leloak idatzi eta apaindu zituzten, ondoren pasilloetan itsasteko.



EKIMEN EZBERDINAK EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNEAN

Abenduaren 3an hainbeste itxarondako Euskararen Eguna ospatu zuten Mendata ikastetxean. Ikasleek ekintza desberdinak egin zituzten. Lehenengo orduetik hasi ziren ekitaldiekin; jolas orduan, adibidez, Zuhatza Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatutako literatur lehiaketako sari-banaketa egin zen. Zorionak Mattin Agirrezabalaga, Nere Barrera, Marina Aceña, Ane Gonzalez, Amalur Ponce eta Ainhoa Loidi!


Azken bi orduetan, berriz, Mendata ikastetxeko ikasle guztiek, lehenengo zein bigarren ziklokoek, euskal mitologiari buruzko kartel lehiaketan parte hartu zuten, euskarako saioetan zirriborro dotoreak egin ostean. Irabazleek euskara ikasgaien puntu bat gehiago izango dute eta hurrengo ikasturterako egutegiak aterako dira beraien marrazkiekin. Zeintzuk izango ote dira irabazleak?



DENBORA-PASAK

#IEROGLIFIKOAK

LEIREK
... ITXI DU



-AH



NOLA DAGO AMA?

T RAINO

*Azken aleko erantzunak: a) Bihotza b) Izaro

ABENDUAK 24-URTARRILAK 6

-XXV. Gabonetako margo eta marrazki erakusketa. Haitz-Haundik antolatuta, udaletxe-ko pleno aretoan. Ordutegia: 18:00-20:00 (lane-gunak)/12:00-14:00 eta 18:00-20:00 (jaiegunak).

ABENDUAK 24, OSTEGUNA

-20:00. Euskal preso eta iheslarien eskubide-en aldeko **elkarretaratzea**, Foruen plazan.

ABENDUAK 26, LARUNBATA

-18:30. **Laburbira**, Kultur Elkartearen.

ABENDUAK 27, IGANDEA

-13:00. **Kontzertua: Debako Musika Banda**, Santa Maria elizako klaustroan.

ABENDUAK 28-29

-Eskalada hastapenak eta zaldiketa ikastaroa 5 urtetik gorakoentzat, Itziarren (5 euroan). Auzo Udalak eta Lizarbe elkarteak antolatuta.

ABENDUAK 29-30

-Haur parkea: 3-8 urteko umeak Aldats pilotalekuan, eta 8 urtez gorakoak Luzaro ikastetxeko karpan. Debalai eta Udalak antolatutarik. Ordutegia: 11:30-13:30 / 16:00-18:00.

ABENDUAK 31, OSTEGUNA

-20:00. Presoen aldeko **brindisa**, Foruen plazan.

URTARRILAK 2, LARUNBATA

-18:30. Burgosko prozesuaren 50. urteurreneko **ekitaldia**, Aldats pilotalekuan.

URTARRILAK 5, ASTEARTEA

-Kabalgararik ez da egingo aurten, baina **erregeen mezua** sare sozialetatik zabalduko dute.

URTARRILAK 9, LARUNBATA

-17:30. Presoen aldeko **ekitaldia** Foruen plazan, Sarek antolatutarik.

Olentzeroren eta Mari Domingiren bisita

-Egoera berezia izanagatik, aurten ere Olentzero eta Mari Domingi bisitan etorriko zaizkigu, beste modu batean izan arren. www.labur.eus/olentzeroetamaridomingi2020 estekaren bitartez helduko zaie haien mezua etxeko txikiei, abenduaren 24an (osteguna), 12:00etan. Zuhatza Euskara Elkarteak, Goaz antzerki taldeak, Zubi guraso elkarteak eta Udalak antolatu dute ekimena, elkarlanean.



Mailegu zerbitzua udal liburutegian

-Ostolaza udal liburutegian eskatutako liburuak, pelikulak... jasotzeko ordutegia ondorengoa da: astelehen eta ostegunetan: 8:30-13:30 eta 17:00-19:00 / asteartean, asteazken eta ostiraletan: 8:30-14:30.

Laburbiraren emanaldia Kultur Elkartearen

-Osasun-krisiaren ondorioz bi aldiz data aldatu ostean, Zuhatzak Laburbira euskarazko film laburren zirkuituaren emanaldia antolatu du abenduaren 26an, 18:30ean, Kultur Elkartearen. Zuzendarietako bat, gainera, Amaia San Sebastian, bertan izango da. Edukiera mugatua izango da eta segurtasun neurriak errespetatuko dira.

ZAINZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara



Zalduegi: **urtarrilak 1, 2, 3, 11, 12, 13, 14.**

Burgoa Zuazo: **abenduak 28, 29, 30, 31. urtarrilak 15, 16, 17.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: urtarrilak 9 eta 16

BURGOA ZUAZO: abenduak 26 / urtarrilak 2

9:30 - 13:00

G

JOXEAN GALDONA AIZPURUA

HORTZ-SENDAGILEA
Odontologia orokorra,
kirurgiak eta inplanteak

Hondartza Kalea, 20 - behea
Tel.: 943 192 819
20820 Deba

Jarri zure publizitatea
Berriketan aldizkarian!

Zuhatza

943 191 383

berriketan@zuhatza.com

ZURE ENTZUMENA ZAINTZEN

Uzuri optika audio

www.uzurioptika.com

Ostolaza, 7
20820 DEBA
Tel: 943192192

RPS: 185/12

LIZ.-ZK.: 3

Taxi Alain Deba

WiFi

www.taxideba.eus

636 135 008
alain@taxideba.eus

MARIJE CASTRO IRIBARREN



- Masaje terapeutikoak
- Kirol masajeak
- Masaje lasaigarriak
- Txinako medikuntza tradizionala (TUI NA)

MASAJISTA

28 URTEKO ESPERIENTZIA

Tel.: 677 557 615

DEBA

AUKERA INMOBILIARIA

www.aukera-inmobiliaria.com

Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447

A
D

ASESORIA DEBA

Kontabilitatea- Nominak -
Aseguruak- Higiezinak

Tel.: 943 192 127
Fax: 943 192 482

asesoriadeba@asesoriadeba.com

www.asesoriadeba.com

Hondartza 2, behea
20820- DEBA (GIPUZKOA)

ALBIZU
HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)

urlo

SERVICIOS INMOBILIARIOS
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

API
Nº. 379

Higiezin Zerbitzuak
Ahokularitza
Higiezin Agentzia
Komunitateen administrazioa
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo Apartado 3
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471
Tel./Fax: 943 192 303
urlo@urlosi.net

ARKATZA
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3
943 192 057
20820 DEBA

Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206
Tel./faxa: 943 191 774
Hondartza, 10 - behea
20820 DEBA (Gipuzkoa)
mikeliturgintza@euskalnet.net
www.mikeliturgintza.com


lerdeneia
ekodenda

"maite ditut nire/guro baserrak"

Lersundi kalea 6- 20820 DEBA
Tel: 943 53 95 20 - E-mail: lerdeneia@gmail.com

GENOVEVA
Arraindegia

Ostolaza Kalea 25.
20820 DEBA (Gipuzkoa)
Telf.: 943 191 818



k
kutxabank

sasoi
iko

ekodenda,
dietetika,
beldarrenda

ZERBITZUAK:

- * Fisioterapia: tekarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- * Gimnasia hipopresiboak
- * Dietista
- * Podologia

Lersundi, 14 943 19 24 42 sasoiiko@hotmail.com

ITXAS GAIN
Taberna
ITXAS GAIN

Hondartza ondoan
Urte guztiaren zabalik

Nafarroa Plaza • Tfnoa.: 943 192 576
20820 DEBA

IGARZA
TABERNA

Ostolaza, 5
DEBA
Tel.: 943 191 197

Argazkilaria
Ander Salegi

(argazki erreportaiak, photoshop-eko erretokeak...)

Email: andersalegi@gmail.com

Tlf: 685 703 843



YURRITA PRODUKTUEN ZUZENEKO ETA ONLINE SALMENTA



BERTAKO ARRAIN KONTSERBA TRADIZIONALAK

Kantauriko Antxoa eta Bokarta, Hegaluzea, eta bestelako gourmet produktuak.



Sarean erosi:

www.yurritagastronomika.com



Zuzeneko salmenta

Asteleheneretik ostiralera: 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 10:00-14:00etara.



Zuzeneko salmenta enpresan bertan, nola iritsi:

Casa Mauleon Etxea

CTRA. A, 20830 Ondarroa, SS



[Ampliar el mapa](#)

Debatik:

Ondarroaranzko errepidea z/g (GI-638, 58. km). Yurrita Group enpresaren aurrean, errepidearen beste aldean.



Google Mapsen Casa Mauleon Etxea edo Yurrita Group jarri.

